

[a]
aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

HERNANI, 2009

**HONDAKINAK ATEZ ATE
BILTZEKO SISTEMAREN
INGURUKO IRITZI ETA
JARRERAK**

-EMAITZEN TXOSTENA -



**Hernaniko
Udala**

[a]
aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

HERNANI, 2009

**HONDAKINAK ATEZ ATE
BILTZEKO SISTEMAREN
INGURUKO IRITZI ETA
JARRERAK**

-EMAITZEN TXOSTENA-

LAN TALDEA:

AMAIA ELIZAGARATE SAGASTIBELTZA

IÑAKI IURREBASO BITERI

SUSANA MARTINEZ CALAVIA

AINHOA LASAGA ARRESE



AURKIBIDEA

0. METODOLOGIA OHARRAK.....	4
1. EMAITZA NAGUSIAK.....	6
2. HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZKO OHITURA, IRITZI ETA JARRERAK	10
2.1. HONDAKINAK BEREIZTEARI BURUZKO OHITURAK.....	11
2.1.1. Ohitura: bereizten dute / ez dute bereizten.....	12
2.1.2. Hondakinak bereizteko zergatiak.....	14
2.2. KONPOSTAJEA.....	16
2.2.1. Konpostari buruzko ezagutza.....	17
2.2.2. Administrazioak gai organikoen bilketa sustatzeari buruzko iritzia.....	19
2.2.3. Autokonpostajea.....	21
2.3. ZABOR ERRAUSTEGIARI BURUZKO IRITZIAK.....	23
3. ATEZ ATEKO GAIKAKO BILKETAREN INGURUKO INFORMAZIO MAILA, IRITZIAK ETA JARRERAK	25
3.1. ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMAZ ZERBAIT ENTZUN DUTEN.....	26
3.2. ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMA EZARTZEA HERNANIRENTZAT ONA EDO TXARRA DEN	28
3.3. ATEZ ATEKO BILKETA EZARRIZ GERO, JARRERAREN NEURKETA.....	32
3.4. ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMAREN EZAUGARRI ZEHATZEN INGURUAN.....	34
3.4.1. Zintzilikatzekoak.....	35
3.4.2. Proposatutako ordutegia.....	37
3.5. ATEZ ATEKO SISTEMAK SORTZEN DIZKIEN KEZKAK ETA BELDURRAK	39
3.6. INFORMAZIO BIDEAK.....	43
3.6.1. Informazio kanpainarako lehenesten dituzten informazio bideak.....	44
3.6.2. Herri batzar edo bileretan parte hartuko lukeen	46
I. ERANSKINA: GALDERA SORTAK	48
II. ERANSKINA: TAULA GURUTZATUAK	61
III.ERANSKINA: ELKARRIZKETATUEN ESANAK	75

0. METODOLOGIA OHARRAK



FITXA TEKNIKOA (LABURPENA)

Unibertsoa: Hernanin bizi diren 15 urtetik gorako herritarrak (**16.396** lagun).

Lagina: **503** elkarrizketa.

Landa-lana: 2009ko irailaren 30tik urriaren 15era egin dugu. Elkarrizketak telefonoz egin ditugu, euskaraz zein gaztelaniaz, elkarrizketatuen nahiaren arabera.

Akats tartea: $\pm\%4,4$ lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan, eta $p=q=\%50,0$ hipotesirik kontrakoarentzat.

IKERKETA TEKNIKA: Hernaniko herritarrei telefono bidezko elkarrizketa egituratua.

UNIBERTSOA: elkarrizketa egin den unean Hernanin bizi diren 15 urtetik gorako herritarrak. Data horretan, hain justu, 15 urtetik gorako 16.396 lagun egon dira errolatuta (Iturria: udal-errola - INE).

LAGINAREN TAMAINA: udalerrian bizi diren **503** lagun.

LAGINKETA: lagina unibertsoaren argazki ahalik eta fidelena izan dadin, laginketa bi urratsetan egin dugu:

- Lehenik, **zori sistematikoaren** bidez, etxebizitzak kale eta atarien hurrenkeran jarrita, telefonoz zein etxetara deitu zehaztu dugu.
- Ondoren, etxeetan, kuoten sistema aplikatu dugu, eta horrela, sexuaren eta adinaren araberako oreka ziurtatu dugu.

Ondorioz, ez dago desbideratze handirik, eta lagina unibertsoaren argazki fidela dela esan dezakegu.

GALDETEGIAK: Aztertu nahi izan ditugun gaiekin osatu dugu galdetegia. Guztira 24 galderarekin osatu dugu galdetegia (7 independenteak eta 16 gaiarekin zerikusia dutenak). Galdetegia bi hizkuntzatarako diseinatu dugu: bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz (ikus eranskina).

LANDA LANA: Inkestak 2009ko irailaren 30etik urriaren 15era egin ditugu, Hernaniko etxeetara telefonoz deituz. Oro har, herritarren erantzuna oso ona izan da.

AKATS TARTEA: $\pm\%4,4$ lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan, eta $p=q=\%50,0$ hipotesirik kontrakoarentzat.

1. EMAITZA NAGUSIAK



FITXA TEKNIKOA (LABURPENA)

Unibertsoa: Hernanin bizi diren 15 urtetik gorako herritarrak (**16.396** lagun).

Lagina: **503** elkarrizketa.

Landa-lana: 2009ko irailaren 30etik urriaren 15era egin dugu. Elkarrizketak telefonoz egin dugu, euskaraz zein gaztelaniaz, elkarrizketatuen nahiaren arabera.

Akats tarte: **±%4,4** lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan, eta $p=q=50,0$ hipotesirik kontrakoarentzat.

HONDAKINEN KUDEAKETAREN INGURUAN

Hondakinak bereizteari buruzko ohiturak

- **Elkarrizketatu ditugun hamar lagunetatik bederatzik** (%89,5) adierazi dute etxean sortzen duten hondakin zati bat gutxienez bereizten dutela. Hamarretik bakarrik adierazi digu (%10,5) bere etxean *“zabor eta hondakin guztiak batera joaten direla poltsa berean”*.
 - Hondakinak gehiago bereizten dituzte emakumeek (%92,6) gizonezkoek baino (%86,2). Unibertsitate-ikasketak dituztenek (%97,0) oinarrizkoak dituztenek baino (%86,2). (*ikus taula gurutzatuen eranskina*)
- Birziklatzeko **hiru arrazoi mota azpimarratu dituzte:** *ingurumena zaintzeagatik* (%59,1), *materialen aprobetxamenduan laguntzeagatik* (%42,7) eta *erantzukizunaren zentzuagatik* (%31,6).

Konpostajea

- **Hamarretik seik** (%62,2) **badakite zer den konposta eta hamarretik ia zortzik** (%77,7) uste dute administrazioak **bultzatu beharko** lukeela gai organikoen **bilketa berezia**, horiek gero konposta bihurtzeko.
 - Konposta zer den gehiago dakite gazteagoek (15-34 urte bitartekoen %68,3k, 35-54 urte bitartekoen %72,2k eta 55 urtetik gorakoen %45,5ek). Eta gai organikoak konposta bihurtzeko bilketa berezia administrazioak bultzatu behar ote lukeen galdetuta, gazteenen artean sumatu dugu aldeko iritzi gehien (15-34 urte bitartekoen %85,9 daude horren alde, 35-54 urte bitartean %81,3, eta 55 urte baino gehiago dituztenen %66,5ak).
 - Konposta zer den gehiago dakite landa-eremukoek (%81,4) herrigunekoek baino (%60,7). Eta ikasketak maila handiagoa dutenek, txikiagoa dutenek baino (unibertsitate-ikasketak dituztenen %87,9k, ertainak dituztenen %75,5ek eta oinarrizkoak edo ikasketarik ez dutenen %49,2k). (*ikus taula gurutzatuen eranskina*)
- Landa-eremuan eta etxean lur sail bat dutenen artean, **hamarretik ia zazpi** (%68,8) **prest agertu dira** etxean bere konposta egiteko udalak konpostagailu bat eskaintzen badie. Beste %13,6k ez dakite zer egingo lukeen eta %17,6 ez dago prest bere konposta egiteko.
 - Konposta etxean egiteko prestutasun handiagoa adierazi dute adin ertainekoek (15-34 urte bitartekoen %85,1ek) gainerakoek baino. (*ikus taula gurutzatuen eranskina*)

Zabor-errautegiari buruzko iritziak


- **Gehienek (%38,5) gaiari buruzko iritzi jakinik ez** dutela edo galderari zer erantzun ez dakitela adierazi digute. **Herenak (%33,5) zabor-errautegiaren aurka** agertu dira. Bere iritzia azkenean erabakitzen den kokapenak baldintzatuko duela, berriz, %14,9k adierazi dute. Aitzitik, hamar lagunetatik bakarrak (%13,1) adierazi du zabor-errautegiaren alde dagoela.
 - Zabor-errautegiaren aurkako iritzia gehiago adierazi dute gazteek, helduek baino (aurka agertu dira 15-34 urte bitartekoen %48,9, 35-55 urte bitartekoen %38,1 eta 55 urtetik gorakoek %15,0). Aurkakotasun handiagoa adierazi dute landa-eremukoek (%51,2), herrigunekoak baino (%32,2). Eta ikasketa maila handia dutenek, txikiagoa dutenek baino (Unibertsitate mailako ikasketak dituztenetatik %49,5ek, ertainak dituztenetatik %48,6k eta oinarrizkoak edo ikasketarik ez dutenen %22,9k). *(ikus taula gurutzatuen eranskina)*

ATEZ ATEKO GAIKAKO BILKETAREN INGURUKO INFORMAZIO MAILA, IRITZIAK ETA JARRERAK**Atez ateko bilketa-sistemaz zerbait entzun dute**

- Guk deitu aurretik elkarrizketatuen **gehiengo handiak entzuna du hondakinak atez ate biltzeko sistemaren berri**; %84,2k entzun dute sistema horretaz hitz egiten. Hitz egiten entzun ez dutenak %15,8 dira.
 - Ikasketa maila handiagoa dutenek gehiago entzun dute atez ateko bilketa-sistemaz hitz egiten, gainerakoek baino (unibertsitate-ikasketak dituztenen %94,9k entzun dute, ikasketa ertainak dituztenen %87,7k eta oinarrizkoak edo ikasketarik ez dutenen %79,4k). *(ikus taula gurutzatuen eranskina)*

Atez ateko bilketa-sistema Hernanirentzat ona edo txarra den

- Guztiei atez ateko bilketa-sistema zer den azaldu ondoren, **ia erdiek (%46,7) Hernanirentzat sistema hori ezartzea ona edo oso ona** litzatekeela diote (%39,3k ona eta %7,4k oso ona). Herenek (%33,7), berriz, uste dute Hernanirentzat txarra edo oso txarra litzatekeela hondakin-bilketa atez ate egiteko sistema ezartzea. Hamarretik bik (%19,6) ez dakitela erantzun digute.



- Hernanirentzat atez ateko bilketa-sistema ezartzea ona edo oso ona dela gehiago adierazi dute gazteenek, helduagoek baino (15-34 urte bitartekoen %58,5ek uste dute ona edo oso ona izango dela, 35-54 urte bitartekoen %47,4k eta 55 urtetik gorakoek %35,9k). Ona edo oso ona dela diotenen portzentajea ere handiagoa da lanean ari direnen artean (%52,1), etxekolanetan ari direnen (40,9) edo pentsiodunak direnen artean baino (%37,2). *(ikus taula gurutzatuen eranskina)*

- Txarra edo oso txarra izango dela diotenen artean, **hauek dira eman dituzten arrazoi nagusiak: zikinagoa** izango delako, hondakinak kaleratzeko egun eta ordutegia **mugatzea** atsegin ez dutelako, etxeak ez daudelako prestatuak hondakin sailkatuak edukitzeko, **jendeak** ez duelako ongi beteko edo sistema berria **kudeatzea** zaila izango delako.

Atez ateko bilketa ezarriz gero, jarreraren neurketa

- Alde edo aurka egon, Hernanirentzat ona dela edo txarra dela iritzi, **hiru laurdenek uste dute sistema berrira moldatuko direla** (%37,8 zailtasun handirik gabe, eta %36,5 hasieran kostata baina moldatuko direla). Hamarretik bik (%19,0) zaila ikusten dute sistema berrira moldatzea.
 - Helduagoek zailago ikusten dute sistema berrira moldatzea, gazteek baino (55 urtetik gorakoen %24,5ek zaila ikusten dute sistema berrira moldatzea, 35-54 urte bitartekoen %18,9k eta 15-34 urte bitartekoen %12,6k). *(ikus taula gurutzatuen eranskina)*

Atez ateko bilketa-sistemaren ezaugarri zehatzen inguruan

- **Antzeko portzentajeen banatzen dira zintzilikatzeak** atari barruan edo atariaren ondoan **ipintzeko arazorik izango ez luketenak** (%37,2) **eta arazoak izango lituzketenak** (%37,6). Nolakoak diren ikusi ondoren erabakiko dute jartzearekin ados diren edo ez beste %13,5ek, eta %6,7k atariaren barruan ez, baina ondoan jartzeko arazorik ez lukete izango.
 - Zintzilikatzeak atarian edo atariaren ondoan ipintzea ez dute nahi batez ere helduenek (55 urtetik gorakoen %46,4k). *(ikus taula gurutzatuen eranskina)*
- **Proposatutako ordutegia** (arratsaldeko 20:30etik aurrera), berriz, **hiru laurdenarentzat** (%75,7) **egokia edo oso egokia da**. Erdipurdikoa da %7,0rentzat eta ez da egokia edo oso desegokia da %12,0rentzat.

Atez ateko bilketa-sistemak sortzen dituen kezkak eta beldurrak

- Irekia utzi dugu elkarrizketatuek beren kezkak eta beldurrak adierazteko tartea. Erantzun hauek **nabarmendu** dira: **etxeetan** hondakinak **pilatu** egingo zaizkiela, **garbitasunean** atzemango dela (bai kaleetan eta baita etxeetan ere), **estetikoki** ez dela txukuna izango, Hernanin sistemak **funtzionatzea** eta sistema ongi **kudeatzea** oso zaila izango dela, eta abar.

Informazio-bideak

- Aipatu behar dugu hutsune bat nabarmen antzeman dugula: **hernaniarrek gaiarekiko informazio falta dutela**. Galdera batean baino gehoagotan atera da kontua.
- Zehazki informazioa zabaltzeko zein bide lehenetsiko luketen galdetuta, **bi nabarmendu** dira: *posta bidezko gutunak* (%59,7) eta *Kronika* (%36,7).
- **Hamarretik ia sei** udalak antolatu ditzakeen **bileretan eta herri batzarretan parte hartuko** luketela adierazi dute: %22,9k ziur, eta %36,9k agian bai. Beste %22,9k ez dute uste parte hartuko dutenik eta %13,9k adierazi digute ez dutela parte hartuko.
 - Ikasketa maila handiagoa dutenek prestutasun handiagoa adierazi dute herri-batza eta bileretan parte hartzeko (unibertsitate-ikasketak dituztenen artean gehiago dira ziur (%27,3) edo agian (%40,4) parte hartuko dutela esan dutenak) *(ikus taula gurutzatuen eranskina)*

2. HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZKO OHITURA, IRITZI ETA JARRERAK




2.1. HONDAKINAK BEREIZTEARI BURUZKO OHITURAK

**2.1.1. OHITURA: BEREIZTEN DUTE / EZ DUTE
BEREIZTEN**

- ***Etxean sortzen dituzuen hondakinak gaika banatzen al dituzue ondoren bakoitza bere edukiontzian botatzeko, edo hondakin guztiak zabor-poltsa berean ateratzen dituzue?***

	Kop.	%
Hondakin batzuk bereizten ditugu ohiko zabor-poltsatik	450	89,5
Zabor eta hondakin guztiak batera joaten dira poltsa berean	53	10,5
GUZTIRA	503	100,0

Iturria: Aztiker. *Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak.* Hernani, 2009



- **Hamarretik bederatzik** (%89,5) adierazi dute etxean sortzen duten hondakinen zati bat gutxienez bereizten dutela. Hamarretik batek (%10,5) bakarrik baieztatu du bere etxean "zabor eta hondakin guztiak batera joaten direla poltsa berean".


2.1.2. HONDAKINAK BEREIZTEKO ZERGATIAK

➤ (BANATZEN DITUZTENEI) **Zein arrazoirengatik bereizten dira zure etxean hondakin batzuk gainerakoetatik? (2 ARRAZOI GEHIENEZ)**

	Kop.	%
Ingurumena zaintzeko	266	59,1
Erantzukizunaren zentzuagatik	142	31,6
Materialen aprobetxamendurako, birziklatzeko	192	42,7
Derrigorrezkoa da	46	10,2
Etxeke beste pertsona baten aholkuz	16	3,6
Zabortegeien eta erraustegien beharra murrizteko	51	11,3
Beste	21	4,7
<i>Ohituragatik</i>	6	1,3
<i>Ez delako ezer kostatzen</i>	6	1,3
<i>Guztion onerako delako</i>	4	0,9
<i>Bizi mailari eusteko</i>	1	0,2
<i>Heziketa kontua da</i>	1	0,2
<i>Seme-alaben etorkizuna zaintzeko</i>	2	0,4
<i>Nahi dudalako</i>	1	0,2
Ez daki	7	1,6
GUZTIRA	450	100,0

Iturria: Aztiker. *Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak. Hernani, 2009*

Oharra: portzentajeen baturak ez du ehun ematen, elkarrizketatu bakoitzak erantzun bat baino gehiago eman zezakeelako.



» Elkarrizketatu ditugun pertsonen birziklatzeko hiru arrazoi mota azpimarratzen dituzte, batez ere: *ingurumena zaintzeagatik* (%59,1), *birziklatzeko edo materialen aprobetxamenduan laguntzeagatik* (%42,7), eta *erantzukizunaren zentzuagatik* (%31,6).


2.2. KONPOSTAJEA

2.2.1. KONPOSTARI BURUZKO EZAGUTZA

➤ **Ba al dakizu konposta zer den?**

	Kop.	%
Bai	313	62,2
Ez	190	37,8
GUZTIRA	503	100,0

Iturria: Aztiker. *Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak*. Hernani, 2009




▶▶ Hamar lagunetatik seik (%62,2) badakite konposta zer den, eta beste lauk (%37,8) ez dakite.

**2.2.2. ADMINISTRAZIOAK GAI ORGANIKOEN
BILKETA SUSTATZEARI BURUZKO IRITZIA**

➤ **Administrazioak, konpost bihurtzeko, gai organikoen gaikako bilketa bultzatu beharko lukeela uste duzu?**

	Kop.	%
Bai	390	77,7
Ez	16	3,2
Ez daki	96	19,1
GUZTIRA	502	100,0

Iturria: Aztiker. *Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak.* Hernani, 2009




- **Hamarretik ia zortzik** (%77,7) uste dute administrazioak gai organikoen bilketa bereizia bultzatu beharko lukeela eta gero konposta bihurtu. Soilik %3,2k uste dute administrazioak ez lukeela egin behar. Eta, beste %19,1ek ez dute jakin zer erantzun.

2.2.3. AUTOKONPOSTAJEA

- (LANDA EREMUKOEI ETA ETXEAN LUR SAIL BAT DUTENEI (lorategia edo baratze txiki bat...) **Aukera izanez gero, eta Udalak konpostagailu bat eskainiz gero, prest egongo zinateke zuk zure konposta egiteko?**

	Kop.	%
Bai	86	68,8
Ez	22	17,6
Ez daki	17	13,6
GUZTIRA	125	100,0

Iturria: Aztiker. Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak. Hernani, 2009




- » Landa-eremukoei eta etxean lur zatiren bat dutenei, aukera izanez gero euren konposta egiteko prest egongo liratekeen galdetu diegu, **hamarretik ia zazpik** (%68,8) baietz erantzun digute, egingo luketela. Beste %17,6k ez lukete egingo eta %13,6k ez dakite.

2.3. ZABOR ERRAUSTEGIARI BURUZKO IRITZIAK

- **Agian entzungo zenuen, Donostialdean zabor-errautegi bat jartzekotan direla. Zer iritzi duzu horretaz: aldeko iritzia duzu, errautegiari buruzko aurkako iritzia duzu, ala zure iritzia errautegiaren kokapenak baldintzatuko du?**

	Kop.	%
Aldeko iritzia	66	13,1
Aurkako iritzia	168	33,4
Kokapenak baldintzatuko du	75	14,9
Ez du ezer entzun eta ez du iritzirik edo ez daki	193	38,4
GUZTIRA	503	100,0

Iturria: Aztiker. *Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak. Hernani, 2009*



- » **Gehienek** (%38,5) gaiari buruzko iritzi jakinik ez dutela edo galderari zer erantzun ez dakitela adierazi digute.
- » **Herenek** (%33,5) **zabor-errautegiaren aurkako** iritzia agertu dute. Eta beste %14,9k adierazi digute azkenean erabakitzen den kokapenak baldintzatuko duela bere iritzia. Aitzitik, hamar lagunetik bat bakarrik (%13,1) agertzen da zabor-errautegiaren alde.

**3. ATEZ ATEKO
GAIKAKO BILKETAREN
INGURUKO
INFORMAZIO MAILA,
IRITZIAK ETA
JARRERAK**




3.1. ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMAZ ZERBAIT ENTZUN DUTEN

- **Herritarrek sortzen ditugun hondakinak kudeatzeko sistema bat baino gehiago daude. Horietako bat atez ateko bilketa da. Entzun al duzu inoiz atez ateko gaikako hondakin-bilketari buruz hitz egiten?**

	Kop.	%
Bai	422	84,2
Ez	79	15,8
GUZTIRA	501	100,0

Iturria: Aztiker. *Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak.*

Hernani, 2009




- » Elkarrizketatuen **%84,2k entzun dute** atez ateko hondakin-bilketari buruz hitz egiten. Beste, %15,8k ez dute entzun.

**3.2. ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMA
EZARTZEA HERNANIRENTZAT ONA
EDO TXARRA DEN**

➤ **Hernanin hondakinak biltzeko sistema hau bultzatzea gauza ona edo txarra dela iruditzen zaizu?**

	Kop.	%
Oso ona	37	7,4
Ona	197	39,3
Txarra	129	25,7
Oso txarra	40	8,0
Ez daki	98	19,6
GUZTIRA	501	100,0

Iturria: Aztiker. Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak. Hernani, 2009



- » Hernaniko herritarren **ia erdiek** (%46,7) uste dute Hernanik atez ateko biltzeko sistema ezartzea gauza ona edo oso ona dela. Herenek uste dute (%33,7) txarra edo oso txarra litzakeela. Azkenik, hamarretik ia bik (%19,6) ez dakite ona edo txarra izango den.

➤ **Zergatik uste duzu atez ateko hondakin bilketa sistema ezartzea txarra edo oso txarra izango dela Hernanirentzat?**

	Kop.	%
HONDAKINAK BILTZEKO SISTEMAREN INGURUAN		
Dagoen sistema nahiago du, 5. edukiontziaarekin	13	7,7
Beste sistema bat nahiago du	6	3,6
Ez zaio atez ateko sistema gustatzen	6	3,6
Nahiago du dagoen sistema	6	3,6
Lurrazpiko edukiontziak jartzea nahiago du	3	1,8
Birziklatu behar da, baina sistema hori ez da egokiena	1	0,6
ATEZ ATEKO SISTEMAREN EZAUGARRIEN INGURUAN		
Zikinagoa da (etxeetarako eta kalerako)	28	16,6
Zaila da egiteko (lan handia eskatzen du eta ez da eroso)	21	12,4
Usain txarra egongo da (etxeetan, kaleetan..)	19	11,2
Antihigienikoa da, osasunarentzat ez da ona	19	11,2
Ez da estetikoa	18	10,7
Hondakinak pilatuko dira etxean (etxeak ez daude prestatuak...)	17	10,1
Hondakinak ateratzeko egun eta ordu zehatzak jartzea ez da egokia. Nahiago du nahi edo behar duenean egin	13	7,7
Ez du hondakinak atean/atarian izan nahi	5	3,0
Arratoiak ugaritzen dira sistema horrekin	3	1,8
Portalean jende asko bizi da, eta hondakinak pilatuko litzaizkieke	2	1,2
Sistema horrekin batzuetan hondakinak bildu gabe geratzen dira	1	0,6
Zakarrontziak kenduko dituztelako	1	0,6
BESTELAKO ERANTZUNAK		
Jendeak ez du ondo egingo	12	7,1
Herriarentzat garestia delako	2	1,2
Kudeatzeko oso zaila dela uste duelako	2	1,2
Herri handi batean jartzea ezinezkoa da (edo oso zaila)	2	1,2
Erdialdean jende asko bizi da, eta ez du erraza ikusten bertan sistema hori jartzea	2	1,2
Hobe da jendea kontzientziatzea ongi birziklatzeko	2	1,2
Atzera pauso/buelta bat da	2	1,2
Ez duelako birziklatu nahi (ezin da behartu)	2	1,2
Kontrako iritziak entzun dituelako (Usurbilen ez daude gustura)	2	1,2
Gaur egun ezinezkoa da	1	0,6
Bizi den tokian ezin da atez atekoa egin	1	0,6
Ez dio etorkizunik ikusten	1	0,6
Tasak igoko dira	1	0,6
Sistema berriarekin tasak jaisten badituzte egingo du	1	0,6
Ez guke lehenak izan behar (toki guztietan jartzen den arte itxaron)	1	0,6
Pertsona helduei kosta egingo zaielako	1	0,6
Txandaka lan egiten duelako eta ezingo lukeelako ongi egin	1	0,6
Gaiarekin zerikusirik ez duten erantzunak	2	1,2
Erantzunik ez	8	4,7
Galderari erantzun diotenak	169	100,0

Iturria: Aztiker. *Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak. Hernani, 2009*

Oharra: Portzentajeen baturak ez du 100 ematen, inkestatu batek erantzun bat baino gehiago eman zezakeelako.

»» Hondakinak atez ate biltzeko sistema Hernanirentzat txarra edo oso txarra dela esan dutenei zergatia galdetu diegu. Hauek izan dira arrazoi aipatuena:


- **Zikinagoa** delako (antihigienikoa, usain txarrak, arratoiak...), eta ez delako estetikoa (hondakinak kaleetan, portaletan...).
- Hondakinak kaleratzeko egun eta ordutegi **mugak gogoko ez** dituelako (norberaren askatasuna mugatzen du).
- **Etxeak** ez daudelako horretarako egokituak (hondakinak etxean pilatuko dira, organikoak usaina botatzen du gainera...)
- Sistema berrira moldatzea zaila eta **konplikatu** izango delako.
- Jendeak ez duelako **ongi beteko** (ondorioz kaleak zikinago egongo dira, usainak ugarituko dira...).
- Eta, **kudeatzea** zaila izango den sistema delako (garestiagoa, erdialdean ipintzea zaila izango dena, bizitza askotako etxebizitzetan sistema ezartzea zaila izango da, herri handietan ezin delako horrelako sistemarik ipini...)

3.3. ATEZ ATEKO BILKETA EZARRIZ GERO, JARRERAREN NEURKETA

➤ (LANDA EREMUKEI IZAN EZIK) **Hondakinak biltzeko sistema horren aurrean, zein uste duzu izango dela zure jarrera?**

	Kop.	%
Zailtasun handirik gabe moldatuko naiz	173	37,8
Moldatuko naiz, baina hasieran kosta egingo zaidala uste dut	167	36,5
Zaila ikusten dut sistema berrira moldatzea	87	19,0
Ez daki	31	6,8
GUZTIRA	458	100,0

Iturria: Aztiker. *Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak.* Hernani, 2009



» Hondakinak atez ate biltzeko sistemari buruz elkarrizketatuen iritzia edozein delarik ere, **hiru laurdenek** uste dute udalerrian sistema hori ezarri gero, moldatuko lirakeela. Horietatik erdiek (elkarrizketatuen %37,8) zailtasun handirik gabe moldatuko direla uste dute, eta beste erdiek (elkarrizketatuen %36,5) uste dute hasieran sistemaz aldatzea kosta egingo litzaiekeela baina moldatuko lirakeela. Azkenik, %19,0k uste dute sistema berrira moldatzea zaila atertuko litzaiekeela.


**3.4. ATEZ ATEKO BILKETA
SYSTEMAREN EZAUGARRI
ZEHATZEN INGURUAN**

3.4.1. ZINTZILIKATZEKOAK

- (LANDA EREMUKEI IZAN EZIK) **Atez ateko hondakin bilketa-sistemarekin, atariko atearen ondoan edo atariaren barruan hondakinak uzteko zintzilikatzekoak edo esekitokiak jarriko dira. Arazorik baduzu zeure etxean horrelakorik ipintzeko?**

	Kop.	%
Ez, ez nuke arazorik izango	171	37,2
Nolakoak diren ikusi ondoren erabakiko nuke	62	13,5
Atariaren ondoan jartzeko ez, barruan bai	31	6,7
Bai, ez dut nahi horrelakorik jartzea	173	37,6
Ez daki	23	5,0
GUZTIRA	227	100,0

Iturria: Aztiker. *Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak. Hernani, 2009*




- » **Elkarrizketatuen %37,2k ez lukete arazorik** izango zintzilikatzekoak atariaren ondoan edo atari barruan ipintzeko, eta beste %13,5ek nolakoak diren ikusi ondoren erabakiko lukete. Aitzitik, **%37,6k ez dute nahi** atarian edo atari ondoan zintzilikatzekoak ipintzea, eta beste %6,7k atariaren ondoan bai, baina atari barruan jartzea ez dute nahi.

3.4.2. PROPOSATUTAKO ORDUTEGIA

- (LANDA EREMUKEI IZAN EZIK) **Atez ateko bilketarekin, hondakinak ordutegi zehatz batean atera behar dira zintzilikatzekora. Hernanin hori arratsaldeko 8:30etatik aurrera egitea proposatzen da. Zuri ordutegi hori oso egokia iruditzen zaizu, egokia, ez oso egokia edo batere egokia ez?**

	Kop.	%
Oso egokia	88	19,3
Egokia	257	56,4
Erdipurdikoa	32	7,0
Desegokia	43	9,4
Oso desegokia	12	2,6
Ez dakit	24	5,3
GUZTIRA	79	100,0

Iturria: Aztiker. *Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak. Hernani, 2009*



- » Hondakinak biltzeko proposatutako ordutegia (arratsaldeko 20:30etik aurrera) egokia edo oso egokia da elkarriketatuen **hiru laurdenentzat** (%75,7). Erdipurdikoa da %7,0rentzat. Eta, desegokia edo oso desegokia dela adierazi digute %12,0k.

3.5. ATEZ ATEKO SISTEMAK SORTZEN DIZKIEN KEZKAK ETA BELDURRAK

➤ **Zuk atez ateko sistemaz entzun duzunarekin eta gaur kontatu dizugunarekin, zein kezka eta beldur sortzen zaizkizu?** (IREKIA)

	Kopurua	%
EZAUGARRI ZEHATZEN INGURUAN		
Atez ateko sistemara moldatzea/antolatzea zaila izango dela edo lan handia eskatuko duela		
Etxean hondakinak pilatuko dira (nola egin etxea txikia bada, balkoirik ez badu...)	38	7,6
Sistema horretara moldatzea zaila izango dela (lan handia eta neketsua izango da)	20	4,0
Etxean bost hondakin-zaku izatea molestia da eta leku asko behar da	8	1,6
Pertsona helduei moldatzea kostatu egingo zaie	7	1,4
Jendeari sistema berria jarraitzea kostatu egingo zaio (ez dute jakingo egiten edo ez dute egingo)	5	1,0
Familia handietan hondakinak pilatuko direla etxeetan	1	0,2
Zerbitzuaren antolaketaren gaineko kezka (ordutegia, egutegia...)		
Ordutegia zein izango den, horrek kezkatzen ditu	14	2,8
Hondakinak kaleratzeko ordutegi eta egutegi mugatuetara moldatzea zaila izango dela	9	1,8
Zein maiztasunekin jasoko den (batez ere, organikoa)	7	1,4
Udaran nola moldatuko diren	3	0,6
Txandaka lan egiten dutenak nola moldatuko diren	3	0,6
Egutegira moldatuko direnaren gaineko kezka	2	0,4
Egunen batean hondakinak ateratzea ahazten bada, nola moldatu	2	0,4
Etxean gutxi egoten direnak nola moldatuko dira?	1	0,2
Nola egingo dute batzuetan etxetik kanpo egun batzuk egoten direnentzat	1	0,2
Garbitasuna, higiena,...		
Usain txarra ugarituko da	40	8,0
Zikinkeria areagotuko da	28	5,6
Animaliak ugarituko dira (arratoiak, eltxoak...)	11	2,2
Higieak sortutako kezka (ez al da izango antihigienikoa, osasunaren aldetik zalantzak)	10	2,0
Atari barruan ipintzea zikina da (usainak... areagotuko dira)	6	1,2
Hondakin organikoak pilatuko dira etxean (usainak...)	3	0,6
Beheko solairuan bizi da, eta hondakinak leihoan izango ditu	1	0,2
Egunero hondakinak ateratzen ez badira, etxean zikinkeria areagotuko da	1	0,2
Bereziki udaran zikina izango da	1	0,2
Nola egingo dugu usain asko duen zerbait badugu hondakinaren artean?	1	0,2
Poltsa bat puskatzen bada, nork garbituko du?	1	0,2
Estetika kontuak		
Estetikoki zatarra izango da	18	3,6
Kaleetan hondakinak sakabanatzea (dena hondakinez betetzea)	4	0,8
Atarian ez dituzte hondakinak izan nahi (ez da atsegina izango)	5	1,0
Zintzilikatzeak non jarriko dituzten, horrek kezkatzen du	4	0,8
Zenbat denbora egongo dira hondakinak zintzilikatzeoetan	1	0,2
Ordutegietatik kanpo hondakinak kaleetan pilatzea	1	0,2
Bestelako hondakinak/kontuak		
Adarrak, zuhaixkak nola bilduko dira?	1	0,2
Larrialdi guneak gertu egon behar dute	1	0,2
Zakarrontziak kenduko ote diren	1	0,2
Pixoihalekin nola moldatuko diren	1	0,2
Plastiko eta beiraren edukiontzia mantendu egin beharko lirateke	1	0,2

ZERBITZUAREN KUDEAKETAREN GAI NEKO KEZKAK		
Ez du funtzionatuko edo zalantzak ditu funtzionatuko duen	16	3,2
Sistema ongi antolatu dadila eskatzen dute, zaila izango da kudeatzea	11	2,2
Zer egingo dute jendeak ez badu egiten edo ez badu ondo egiten (aurka daudenak, batez ere)	9	1,8
Proba bat egin behar da aurretik, ea ongi moldatzen garen	5	1,0
Kezka sagardotegi garaian kaskoan nola antolatuko den	4	0,8
Hernanirentzat garestia izango da	3	0,6
Ez du uste erdialdean sistema hau ezartzeko aukerarik egongo denik	3	0,6
Hernani handia da, eta zaila izango da kudeatzea (ezingo da ipini)	2	0,4
Erdialdean, etxeak oso juntuta dauden tokietan, nola egingo da?	2	0,4
Bizilagun asko diren tokietan nola egingo duten	1	0,2
Ez legoke gaizki edukiontzia batzuk ere jartzea	1	0,2
Nola egingo dute jaietan eta horrelakoetan	1	0,2
Nola kobratuko duten, denei berdin?	1	0,2
Etxeak oso banatuak (diseminatuak) dauden auzoetan ezingo da egin	1	0,2
Haurrak hondakinekin jolastuko dira, hondakinak kanpoan jartzen baditugu	1	0,2
INFORMAZIO GEHIAGO ESKATZEN DUTE		
Informazioa falta dute (ez dute ezagutzen sistema berria)	19	3,8
Zein kostu izango duen sistemak, hori jakin nahi dute	1	0,2
Zein onura edo ekarpen izango duen jakin nahi dute	1	0,2
SISTEMA BERA ZALANTZAN JARTZEN DUTE		
Aurkako jarrera garbia adierazi dute		
Ez du sistema hori jartzea nahi	4	0,8
Erabakia du ez duela egingo	2	0,4
Dagoen sistemarekin jarraitu nahi du (5. edukiontzia gehituta)	1	0,2
Edukiontziekin hobea da	1	0,2
Ez du ordainduko	1	0,2
Tasak jaisten ez badira, ez du egingo	1	0,2
Gehiengoak nahi badu ipini soilik	1	0,2
BESTE		
Jendearen erantzunak kezkatzen du (jendeak ongi egingo duen edo ez)	10	2,0
Hasieran kostu egingo da, baina moldatuko gara	7	1,4
Atzera buelta bat da	3	0,6
Usurbilen ez da hain ongi joan.	1	0,2
Ez ditu sinisten ematen dituzten datuak	1	0,2
Hobe litzateke ongi birziklatzen erakustea	1	0,2
Hondakinak banaka jaso gero dena edukiontzia berdinean botatzeko, alferrikako esfortzua da	1	0,2
Agian ez du ezertarako balioko	1	0,2
Ez du kezkarik / beldurrik	16	3,2
Esan duenak ez dio galderari erantzuten	4	0,8
Ez daki	10	2,0
Ez du erantzun	209	41,8
GUZTIRA	500	100,0

Iturria: Aztiker. *Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak. Hernani, 2009*

Oharra: Portzentajeen baturak ez du 100 ematen, inkestatu batek erantzun bat baino gehiago eman zezakeelako.

»Aurreko taulan bildu ditugu Hernaniarrek hondakinak atez ate biltzeko sistemaren inguruan adierazi dizkiguten kezka eta beldurrak. **Nabarmentzekoak** hauek:

- Etxeetan hondakinak pilatuko direla
- Garbitasunean antzemango dela (kaleak zikinagoak, usain txarrak, atarietan zintzilikatzeak jartzen badira usain txarrak izango dira, animaliak ugarituko direla -arratoiak eta eltxoak, batez ere-, etab.)
- Estetikoki ere ez dela ongi geratuko
- Azkenik, Hernani bezalako herri handi batean horrelako sistema bat kudeatzea oso zaila edo ezinezkoa izango dela ere esan dute.

3.6. INFORMAZIO BIDEAK


**3.6.1. INFORMAZIO KANPAINARAKO LEHENESTEN
DITUZTEN INFORMAZIO BIDEAK**

➤ **Atez ateko hondakin bilketa-sistema ezarri aurretik, Udalak informazio-kanpaina bat martxan jarriko luke. Horretarako zein informazio-bideri deritzozu egokiena?** (EGOKIEN IRUDITZEN ZAIZKION BIAK AUKERATZEKO ESKATU DIEGU)

	Kop.	%
Posta bidezko gutunetan	296	59,7
Kronikan	182	36,7
Egunkarietako kronika lokalean	90	18,1
Herri-batzar edo bileretan	71	14,3
Kalean kartelak, informazio-panelak	50	10,1
Udaleko webgunean	24	4,8
Beste	35	7,1
<i>Ahal diren bide guztiak erabili</i>	13	2,6
<i>Kartelak atarietan</i>	5	1,0
<i>Auzoetan hitzaldiak edo bilerak</i>	3	0,6
<i>Telebistan</i>	3	0,6
<i>Telefono bidezko kontaktu bat etxe guztietara</i>	2	0,4
<i>Ahoz aho</i>	2	0,4
<i>Irratian</i>	2	0,4
<i>Udalean telefono bat jarri horretarako</i>	2	0,4
<i>Herriko telebista</i>	1	0,2
<i>Etxez etxe etortzea azalpenak emateko</i>	1	0,2
<i>Posta elektronikoz</i>	1	0,2
Ez daki	36	7,3
GUZTIRA	496	100,0

Iturria: Aztiker. Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak. Hernani, 2009

Oharra: portzentajeen baturak ez du ehun ematen, elkarrizketatu bakoitzak erantzun bat baino gehiago eman zezakeelako




➤ Udalak erabil ditzakeen informazio-bideetan hurrenkera hau hobetsi dute hernaniarrek: *posta bidezko etxez etxeko gutunak* (%59,7), *Kronika* (36,7), *egunkariak* (%18,1), *herri-batzar edo bilerak* (%14,3), *kalean kartelak edo informazio-panelak* (%10,1) eta *udaleko webgunea* (%4,8).

**3.6.2. HERRI BATZAR EDO BILERETAN PARTE
HARTUKO LUKEEN**

➤ **Eta Udalak informazioa zabaltzeko eta herritarren iritziak jasotzek, herri-batzarrak edo bilerak egingo balitu. Zuk parte hartuko zenuke?**

	Kop.	%
Bai, ziur	115	22,9
Agian bai	185	36,9
Ez dut uste	115	22,9
Ez, ziur ezetz	70	13,9
Ez daki	17	3,4
GUZTIRA	502	100,0

Iturria: Aztiker. *Hondakinak atez ate biltzeko sistema indarrean jartzearen inguruko iritzi eta jarrerak. Hernani, 2009*



- » **Hamarretik ia seik** herri-batzar edo bileretan parte hartuko luketela adierazi dute: %22,9k ziur eta beste %36,9k agian. Hamarretik ia lau, berriz, ez daude prest bilera horietan parte hartzeko (%13,9 ziur daude ez dutela parte hartuko eta beste %22,9k ez dute uste parte hartuko dutenik).

I. ERANSKINA: GALDERA SORTAK





HERNANI INKESTA, 2009

GALDERA-SORTA

SARRERA

EGUN ON / ARRATSALDE ON. (ELKARRIZKETATZAILEAREN IZEN-ABIZENAK) NAIZ, ETA HERNANIKO UDALAK ESKATUTA DEITZEN DIZUT. INKESTA TXIKI BAT EGITEN ARI GARA HERRITARRAK HONDAKINEN KUDEAKETAREN INGURUAN DITUZUEN IRITZIAK EZAGUTZEKO. BA AL DITUZU GURE GALDEREI ERANTZUTEKO MINUTU GUTXI BATZUK?

ARGUMENTARIOA (HORRELAKORIK BEHARKO BALITZ BAKARRIK, INKESTARI ERANTZUN ALA EZ ZALANTZA EGITEN DUTENEAN):

- Zure etxebizitza ausaz aukeratua izan da, beste 499 etxebizitzarekin batera (500 guztira)
- Inkesta anonimoa da, ez dira inolako kasutan datu pertsonalak eta galdera-sortan emandako erantzunak elkarrekin azalduko.
- Ez da salmenta-operazio bat.
- Herritarren iritziak jakin nahi ditugu, hondakinen kudeaketa zerbitzua zuen beharretara moldatzeko.

KUOTAK

ETXEBIZITZA HONETAN EZAUGARRI HAUEK DITUEN PERTSONAREN BAT BIZI DA?
XXXX

ELKARRIZKETAN ZEIN HIZKUNTZA ERABILIKO DEN ARGITU (AUKERAK ESKAINI)

KUOTAREN BATEAN SARTZEN BADA, DATUAK IDATZI (ELKARRIZKETATU BEHARREKO PERTSONA ZEHAZTU ONDOREN)

1. Sexua (galdetu gabe idatzi) – Zalantza izan ezkerre zeharkako bideak erabili (izena galdetuz...):

Emakumezkoa 1 Gizonezkoa 2

2. Adina (betetako urteak, aurretik esan ez badu, galdetu):

3. Zenbat pertsona bizi zarete etxebizitza honetan, zeu barne?



4. Zein auzotan bizi zara?

▶ KASKOA-HIRIGUNEA	1	<input type="checkbox"/>
▶ UDALETXE ATZEA	2	<input type="checkbox"/>
▶ SORGNTXULO-LATSUNBE-URBIETA KALEA	3	<input type="checkbox"/>
▶ AKERREGI AUZOA-ZIKUÑAGA AUZOA	4	<input type="checkbox"/>
▶ SAGASTIALDE - ANTZIOLA- ZINKOENEA	5	<input type="checkbox"/>
▶ KARABEL-PORTU-ELIZATXO AUZOAK	6	<input type="checkbox"/>
▶ ZINKOENEA - FLORIDA AUZOA	7	<input type="checkbox"/>
▶ MARTINDEGI AUZOA	8	<input type="checkbox"/>
▶ SANTA BARBARA AUZOA	9	<input type="checkbox"/>
▶ JAUREGI BAILARA	10	<input type="checkbox"/>
▶ LANDA EREMUA	11	<input type="checkbox"/>
▶ Ez daki	0	<input type="checkbox"/>
▶ Erantzunik ez	9	<input type="checkbox"/>

5. (XXX AUZOETAN) Zure etxea landa-eremuan edo herrigunean dago?

▶ Landa-eremua	1	<input type="checkbox"/>
▶ Herrigunea	2	<input type="checkbox"/>
▶ Ez daki	0	<input type="checkbox"/>
▶ Erantzunik ez	9	<input type="checkbox"/>

IRUDITZEN BAZAIZU, GAIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GALDEREKIN HASIKO GARA.

6. Etxean sortzen dituzuen hondakinak gaika banatzen al dituzue ondoren bakoitza bere edukiontzian botatzeko, edo hondakin guztiak zabor-poltsa berean ateratzen dituzue?

▶ Hondakin batzuk bereizten ditugu ohiko zabor-poltsatik	1	<input type="checkbox"/>
▶ Zabor eta hondakin guztiak batera joaten dira poltsa berean	2	<input type="checkbox"/>
▶ Ez daki	0	<input type="checkbox"/>
▶ Erantzunik ez	9	<input type="checkbox"/>

7. (BANATZEN DITUZTENEI) Zein arrazoirengatik bereizten dira zure etxean hondakin batzuk gainerakoetatik? (EGOKITU) (2 ARRAZOI GEHIENEZ)

▶ Ingurumena zaintzeko	1	<input type="checkbox"/>
▶ Erantzukizunaren zentzuagatik	1	<input type="checkbox"/>
▶ Materialen aprobetxamendurako, birziklatzeko	1	<input type="checkbox"/>
▶ Derrigorrezkoa da	1	<input type="checkbox"/>
▶ Etxeko beste pertsona baten aholkuz	1	<input type="checkbox"/>
▶ Zabortegien eta erraustegien beharra murrizteko	1	<input type="checkbox"/>
▶ Ez daki	0	<input type="checkbox"/>
▶ Erantzunik ez	9	<input type="checkbox"/>
▶ BESTE ERANTZUNEN BAT	8	<input type="checkbox"/>

8. Agian entzungo zenuen, Donostialdean zabor-errautegi bat jartzekotan direla. Zer iritzi duzu horretaz: aldeko iritzia duzu, errautegiari buruzko aurkako iritzia duzu, ala zure iritzia errautegiaren kokapenak baldintzatuko du?

- ▶ Aldeko iritzia 1
- ▶ Aurkako iritzia 2
- ▶ Kokapenak baldintzatuko du 3
- ▶ Ez du ezer entzun eta ez du iritzik 4
- ▶ Ez daki 0
- ▶ Erantzunik ez 9

9. Ba al dakizu konposta zer den?

- ▶ Bai 1
- ▶ Ez (AZALPENA IRAKURRI) 2
- ▶ Ez daki 0
- ▶ Erantzunik ez 9

(EZ) (ELKARRIZKETATZAILEA: EDUKIA EGOKITU)

Gai organikoek osatzen dute etxeetan sortzen dugun hondakinen zatirik handiena. Hondakin horiek murriztea eta horietaz baliatzea ahalbidetzen duen prozedura bat badago (konpostajea). Prozedura horren bitartez, hondakinak konposta izeneko gai bihurtzen dira, ongarri moduan nekazaritzan eta lorezaintzan erabiltzen dena.

10. Administrazioak, konpost bihurtzeko, gai organikoen gaikako bilketa bultzatu beharko lukeela uste duzu?

- ▶ Bai 1
- ▶ Ez 2
- ▶ Ez daki 0
- ▶ Erantzunik ez 9

11. (LANDA EREMUKEI IZAN EZIK) Baduzu etxean lur sailik (lorategia edo baratze txikiren bat)?

- ▶ Bai 1
- ▶ Ez 2
- ▶ Ez daki 0
- ▶ Erantzunik ez 9

12. (LANDA-EREMUKOEI ETA ETXEAN LUR SAIL BAT DUTENEI (lorategia edo baratze txiki bat...)) Aukera izanez gero, eta Udalak konpostagailu bat eskainiz gero, prest egongo zinateke zuk zure konposta egiteko?

- ▶ Bai 1
- ▶ Ez 2
- ▶ Ez daki 0
- ▶ Erantzunik ez 9

13. Herritarrek sortzen ditugun hondakinak kudeatzeko sistema ezberdinak daude. Horietako bat atez ateko biltzeta da. Entzun al duzu inoiz atez ateko gaikako hondakin-biltzetari buruz hitz egiten?


- | | |
|-----------------|----------------------------|
| ▶ Bai | 1 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Ez | 2 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Ez daki | 0 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Erantzunik ez | 9 <input type="checkbox"/> |

(GUZTIEI AZALPENA IRAKURRI) Atez ateko sistema hondakinak biltzeko modu bat da. Sistema hau ezartzen den tokietan kaleko kontenedoreak edo edukiontziak kendu egiten dira. Etxeetan hondakinak gaika banatzen dira, 5 zati nagusitan: organikoa, papera eta kartoia, ontzi arinak, beira eta gainerakoa (errefusa edo berrerabili ezin daitekeena). Frakzio bakoitza egun jakinetan portaleko atean jarrita dauden zintzilikatzeoetara edo esekitokietara atera eta kamioiak bertatik biltzen ditu.

Usurbilen duela 6 hilabetetik egiten da atez ateko biltzeta, eta bertan %80 baino gehiago birziklatzea lortzen da (egun Hernanin dugun sistemarekin %20 inguru baino ez da birziklatzen).

14. Hernanin hondakinak biltzeko sistema hau bultzatzea gauza ona edo txarra dela iruditzen zaizu?

- | | |
|-----------------|----------------------------|
| ▶ Oso ona | 1 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Ona | 2 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Txarra | 3 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Oso txarra | 4 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Ez daki | 0 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Erantzunik ez | 9 <input type="checkbox"/> |



(txarra edo oso txarra esan dutenei) Zergatik? (irekia)

15. (LANDA EREMUKOEI IZAN EZIK) Hondakinak biltzeko sistema horren aurrean, zein uste duzu izango dela zure jarrera?

- | | |
|---|----------------------------|
| ▶ Zailtasun handirik gabe moldatuko naiz | 1 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Moldatuko naiz, baina hasieran kostatuko zaidala uste dut | 2 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Zaila ikusten dut sistema berrira moldatzea | 3 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Ez daki | 0 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Erantzunik ez | 9 <input type="checkbox"/> |

16. Sistema berri bat ezartzeak ohitura-aldaketak dakartza berarekin, eta normala izaten da kezka eta beldurrak eragitea. Zuk atez ateko sistemaz entzun duzunarekin eta gaur kontatu dizugunarekin, zein kezka eta beldur sortzen zaizkizu? (IREKIA, DIOENA AHALIK ETA ZEHATZEN IDATZI)

17. (LANDA-EREMUKOEI IZAN EZIK) Atez-ateko hondakin-bilketa sistemarekin, portaleko atearen ondoan edo portalaren barruan hondakinak uzteko zintzilikatzeak edo esekitokiak jarriko dira. Arazorik baduzu zeure etxean horrelakorik ipintzeko?

- | | |
|---|----------------------------|
| ▶ Bai, ez dut nahi horrelakorik jartzea | 1 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Portalaren ondoan jartzeko ez, barruan bai | 2 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Ez, ez nuke arazorik izango | 3 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Nolakoak diren ikusi ondoren erabakiko nuke | 4 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Ez daki | 0 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Erantzunik ez | 9 <input type="checkbox"/> |

18. (LANDA-EREMUKOEI IZAN EZIK) Atez ateko bilketarekin, hondakinak ordutegi zehatz batean atera behar dira zintzilikatzeak. Hernanin hori arratsaldeko 8:30tatik aurrera egitea proposatzen da. Zuri ordutegi hori oso egokia iruditzen zaizu, egokia, ez oso egokia edo batere egokia ez ?

- | | |
|------------------------------|----------------------------|
| ▶ Oso Egokia | 1 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Egokia | 2 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Erdipurdikoa (ez irakurri) | 3 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Desegokia | 4 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Oso desegokia | 5 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Ez daki | 0 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Erantzunik ez | 9 <input type="checkbox"/> |

19. Atez-ateko hondakin bilketa sistema ezarri aurretik, Udalak informazio-kanpaina bat martxan jarriko luke. Horretarako zein informazio-bideri deritzozu egokiena? (ZERRENDA IRAKURRI ETA NAHIAGO DITUEN BIAK AUKERATZEKO ESKATU)

- | | |
|--|----------------------------|
| ▶ Kanean kartelak, informazio-panelak... | 1 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Udaleko Web orrian | 2 <input type="checkbox"/> |
| ▶ <i>Kronikan</i> | 3 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Egunkarietako kronika lokalean | 4 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Posta bidezko gutunetan | 5 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Herri-batzar edo bileretan | 6 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Beste. Idatzi.... | 7 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Ez daki | 0 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Erantzunik ez | 9 <input type="checkbox"/> |

20. Eta Udalak informazioa zabaltzeko eta herritarren iritziak jasotzeko herri-batzarrak edo bilerak egingo balitu. Zuk parte hartuko zenuke?

▶ Bai, ziur	1 <input type="checkbox"/>
▶ Agian bai	2 <input type="checkbox"/>
▶ Ez dut uste	3 <input type="checkbox"/>
▶ Ez, ziur ezetz	4 <input type="checkbox"/>
▶ Ez daki	0 <input type="checkbox"/>
▶ Erantzunik ez	9 <input type="checkbox"/>

BUKATZEKO, ZURI BURUZ GALDERA GUTXI BATZUK EGINGO DIZKIZUT**21. ZEIN IKASKETA BUKATU DITUZU?**

Batere ez	<input type="checkbox"/> 1
Oinarrizkoak / OHO	<input type="checkbox"/> 2
Oinarrizko Batxilergoa / DBH (ESO)	<input type="checkbox"/> 3
Lankide Heziketa 1 (LH1)	<input type="checkbox"/> 4
Lanbide Heziketa 2 (LH2) / Bigarren mailako ikasketak	<input type="checkbox"/> 5
Goi mailako Batxilergoa	<input type="checkbox"/> 6
BBB/ UBI / LOGSE batxilergoa (BUP/COU)	<input type="checkbox"/> 7
Hizkuntzak	<input type="checkbox"/> 8
Goi mailako Lanbide Heziketa (ingeniaritzak eta arkitekto teknikoak)	<input type="checkbox"/> 9
Erdi eta goi mailako ikasketak (diplomaturak)	<input type="checkbox"/> 10
Goi mailako ikasketak (lizentziaturak)	<input type="checkbox"/> 11
Doktoregoa / masterra	<input type="checkbox"/> 12
Ez daki	<input type="checkbox"/> 90
Erantzunik ez	<input type="checkbox"/> 99

22. GAUR EGUN, ZEIN DA ZURE LAN EGOERA? ETXETIK KANPO LAN EGITEN DUZU? (MOLDATU GALDERAK ELKARRIZKETATUAREN ERANTZUNEN ARABERA)

Bere kontura lan egiten du	<input type="checkbox"/> 1
Kooperatibista da	<input type="checkbox"/> 2
Besteren kontura lan egiten du	<input type="checkbox"/> 3
Langabezian dago	<input type="checkbox"/> 4
Etxeko lanak egiten ditu	<input type="checkbox"/> 5
Ikaslea da	<input type="checkbox"/> 6
Lan egiten duen ikaslea da	<input type="checkbox"/> 7
Erretiratu, pentsionista da	<input type="checkbox"/> 8
Beste	<input type="checkbox"/> 9
Ez daki	<input type="checkbox"/> 90
Erantzunik ez	<input type="checkbox"/> 99

23. BUKATU DUGU. INKESTAN AIPATU DITUGUN GAIEI BURUZ ESATEKO BESTE ZERBAIT BADUZU, ORAIN EGIN DEZAKEZU...

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK. AGURTU. [ELKARRIZKETAREN AMAIERA>*](#)



HERNANI, 2009

CUESTIONARIO

INTRODUCCIÓN

BUENOS DÍAS / TARDES. SOY (NOMBRE DEL ENTREVISTADOR), Y TE LLAMO EN NOMBRE DEL AYUNTAMIENTO DE HERNANI. ESTAMOS REALIZANDO UNA PEQUEÑA ENCUESTA PARA CONOCER LAS OPINIONES DE LOS CIUDADANOS DE HERNANI SOBRE LA GESTIÓN DE RESIDUOS URBANOS. ¿SERÍA VD. TAN AMABLE DE DEDICARNOS UNOS POCOS MINUTOS PARA RESPONDER A UNAS PREGUNTAS?

ARGUMENTARIO (SÓLO SI ES NECESARIO, CUANDO DUDAN SI RESPONDER O NO A LA ENCUESTA):

- Su domicilio ha sido seleccionado al azar, junto a otros 499 (500 en total)
- La encuesta es anónima, en ningún caso se relacionará ningún dato personal con las respuestas dadas al cuestionario.
- No es una operación de venta
- El objetivo es conocer la opinión de los ciudadanos para adaptar el servicio a vuestras necesidades.

CUOTAS

**¿RESIDE EN ESTA VIVIENDA ALGUNA PERSONA DE LAS SIGUIENTES CARACTERÍSTICAS?
XXXX**

ACLARAR IDIOMA DE ENTREVISTA (OFRECER POSIBILIDAD)

SI ENTRA EN ALGUNA CUOTA, ANOTAR DATOS (UNA VEZ FIJADA LA PERSONA A ENTREVISTAR)

1. Sexo (anotar sin preguntar – Zalantza izan ezkerreko zeharkako bideak erabili (izena galdetuz...):

Mujer 1 Hombre 2

2. Edad (años cumplidos, preguntar si no lo ha dicho antes):

3. ¿Cuántas personas, incluida Vd., residen habitualmente en este domicilio?

4. ¿En qué barrio vive usted?

▶ KASKO-CENTRO	1	<input type="checkbox"/>
▶ DETRÁS DEL AYUNTAMIENTO	2	<input type="checkbox"/>
▶ SORGNTXULO-LATSUNBE-CALLE URBIETA	3	<input type="checkbox"/>
▶ BARRIO AKERREGI-BARRIO ZIKUÑAGA AUZOA	4	<input type="checkbox"/>
▶ SAGASTIALDE - ANTZIOLA- ZINKOENEA	5	<input type="checkbox"/>
▶ KARABEL-PORTU-ELIZATXO	6	<input type="checkbox"/>
▶ ZINKOENEA - BARRIO FLORIDA	7	<input type="checkbox"/>
▶ BARRIO MARTINDEGI	8	<input type="checkbox"/>
▶ SANTA BARBARA	9	<input type="checkbox"/>
▶ JAUREGI BAILARA	10	<input type="checkbox"/>
▶ ZONA RURAL	11	<input type="checkbox"/>
▶ Ez daki	0	<input type="checkbox"/>
▶ Erantzunik ez	9	<input type="checkbox"/>

5. (XXX AUZOETAN) ¿Su vivienda está ubicada en zona rural o en zona urbana?

▶ Zona rural	1	<input type="checkbox"/>
▶ Zona urbana	2	<input type="checkbox"/>
▶ No sabe	0	<input type="checkbox"/>
▶ No contesta	9	<input type="checkbox"/>

SI LE PARECE VAMOS A COMENZAR CON LAS PREGUNTAS QUE TIENEN QUE VER CON EL TEMA.

6. ¿En su casa separan algunos residuos de la bolsa de basura para sacarlos cada uno al contenedor que le corresponde, o sacan, sin separarlo, todo junto en la misma bolsa?

▶ Se separan algunos residuos de la bolsa de basura	1	<input type="checkbox"/>
▶ Toda la basura y los residuos van juntos en la misma bolsa	2	<input type="checkbox"/>
▶ No sabe	0	<input type="checkbox"/>
▶ No contesta	9	<input type="checkbox"/>

7. (A LOS QUE SEPARAN) ¿Cuáles son los motivos por los que se separan en su casa algunos residuos del resto? (ENCAJAR) (MÁXIMO 2 RAZONES)

▶ Cuidado del medio ambiente	1	<input type="checkbox"/>
▶ Por sentido de la responsabilidad	2	<input type="checkbox"/>
▶ Aprovechamiento de materiales para reciclarlos	3	<input type="checkbox"/>
▶ Es obligatorio	4	<input type="checkbox"/>
▶ Por consejo de otra persona del hogar	5	<input type="checkbox"/>
▶ Para reducir la necesidad de vertederos e incineradoras	6	<input type="checkbox"/>
▶ No sabe	0	<input type="checkbox"/>
▶ No contesta	9	<input type="checkbox"/>
▶ OTRA RESPUESTA	8	<input type="checkbox"/>

8. Habrá oído hablar de que existe un proyecto para construir una incineradora en Donostialdea. ¿Cuál es su opinión al respecto? ¿Tiene vd. Una opinión favorable o una opinión contraria a la incineración, o su opinión estará condicionada a la ubicación definitiva de la incineradora?

- | | |
|---|----------------------------|
| ▶ Favorable | 1 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Contraria | 2 <input type="checkbox"/> |
| ▶ Condicionada a la ubicación | 3 <input type="checkbox"/> |
| ▶ No ha oído nada del proyecto y no tiene opinión | 4 <input type="checkbox"/> |
| ▶ No sabe | 0 <input type="checkbox"/> |
| ▶ No contesta | 9 <input type="checkbox"/> |

9. ¿Sabe Vd. lo que es el compost?

- | | |
|-------------------------|----------------------------|
| ▶ Sí | 1 <input type="checkbox"/> |
| ▶ No (LEER EXPLICACIÓN) | 2 <input type="checkbox"/> |
| ▶ No sabe | 0 <input type="checkbox"/> |
| ▶ No contesta | 9 <input type="checkbox"/> |

(NO) (ENTREV.: ADECUAR CONTENIDO)

La materia orgánica supone la parte más importante del total de residuos que generamos en las casas. Existe un procedimiento (el compostaje) que posibilita la reducción y el aprovechamiento de esa fracción, convirtiéndolos en una sustancia llamada compost que se aprovecha a modo de abono para la agricultura y la jardinería.

10. ¿Cree que la Administración debería impulsar la recogida selectiva de residuos orgánicos para transformarlos en compost?

- | | |
|---------------|----------------------------|
| ▶ Sí | 1 <input type="checkbox"/> |
| ▶ No | 2 <input type="checkbox"/> |
